

261

2018ko iraila

TOKIKOM



**MINBIZIA:  
3 PERTSONA,  
3 BORROKA,  
11 LEZIO**



## URRIAREN 20AN DENOK BILBORA!

Dagoeneko inork ezin uka dezake: konponbiderako, elkarbizitzarako eta bakerako unea da. Pasa den maiatzaren 4an bizitako egun historikoaren ostean, parez pare ireki zaigu hainbeste sufrimendu sortarazi duen ziklo luze honi amaiera emateko aukera, elkarrekin lan eginez, elkarri begiraturaz, elkarri entzunez, ditugun adostasunei lehentasuna emanaz eta elkarrekin bidea eginez.

Etorkizunari begira jarri nahi dugu, eta horretarako iraganetik datozen oinaze eta min guztiak sendatzea ezinbestekoa da. Bide honetan izan diren eta diren biktima guztiak merezi dute egia, memoria eta erreparazioa. Norabide horretan sakondu behar dugu. Herritar gisa, guztioi dagokigu ardura hau geure egitea, guztiok merezi baitugu elkarbizitzan eta bakean oinarritutako gizarte batean bizitzea.

Oraindik bada, ordea, sufrimendua sortzen jarraitzen duen auzi bat, askatu beharreko korapilo bat. Hain zuzen ere, gaur hemen batu gaituena. Egun, jadanik ETAk existitzeari utzi dion arren, 282 euskal preso daude euren senideengandik ehunka edo milaka kilometrora urrunduak. Espetxean dauden pertsona hauek euren eskubideen jabe izan arren, oraindik ere salbuespen-neurriak ezartzen zaizkie, Espainiako zein Europako legedien aurka doazenak, eta, presoak ez ezik, senideak, bereziki haurrak eta adin nagusiko pertsonak ere zigortzen dituztenak.

Bakean eta adiskidetuta bizi den gizarte batekin amesten dugunok giza eskubideen errespetuak batzen gaitu. Jakin badakigu adiskidetzea prozesu konplexu bezain beharrezkoa dela, urratsez urrats eraikitzen joango dena. Zentzu honetan, egungo espetxe-politika aldatzea ezinbestekotzat jotzen dugu, eta horretarako behar beharrezkoa da guztion bultzada eta konpromisoa.

Lau lehentasun hauek dira, bereziki, lehenbailehen konpondu beharrekoak:

- Urruntzea. Asteburu oroz ehunka senide ehunka kilometro egitera behartzen dituena.
- Larriki gaixo dauden presoak. Egun gutxiko bizia geratu aurretik, gaixorik dauden presoek behar bezala artatzeko eskubidea dute, hemen eta orain.
- Europako Legediak dioen moduan, bi estatutako zigorren batuketaren aplikazioa.
- Lehen Graduen aldaketa. Euskal presoek, lehen graduan betetzen dute zigorraren %100, eta hori legearen kontra doa.

Espetxe-politika hau iraganean kateatuta dago eta ez-ohiko lege batean oinarritzen da. Guk etorkizunera begira jartzeko garaia dela uste dugu. Gure ondorengoentzat guri aurrekoek utzi zigutena baino etorkizun hobeak eraikitzeko aukera dugu esku artean. ETA desagertu den honetan, ez dugu sufrimendu gehiago sortzen duen politikarik nahi.

Korapiloak askatzeko unea da. ORAIN. Elkarbizitzarako unea. Urteetan sortutako gizarte-arrakalak elkarrekin sendatzeko unea. ORAIN. Batu ezin izan garenok batzeko unea da. Orain presoan auzia konpontzeko unea da.

Gaur hemen batu garenok ORAIN PRESOKAK dinamika jarri dugu martxan, eta guztioi dei egiten dizuegu, gure ametsarekin bat egiten baduzue, urriaren 20rako antolatzen ari garen manifestazioa herri honetan inoiz izan den mobilizaziorik handiena bilakatzen laguntzera.

Orain presoak.



Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



- 04 ESKOLATIK MAILOPERA
- 05 BERTSO BERRIAK: Haydee Calderon.
- 06 ELKARRIZKETA: Julia Hernández De Jesús
- 10 ELKARRI MOKOKA
- 11 KUXKUXEAN: Iraileko zorion agurrak.
- 12 BATZARRE
- 14 LUZE ETA ZABAL
- 16 ERREPORTAJEA: Minbiziaren aurkako borroka.
- 23 KULTURA
- 26 KIROLA
- 28 PLAZATIK PLAZARA: Katixa Goldarazena Azpirotz.
- 30 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Maider Otegi, Maider Agirrebarrena, Araxes Garaiko Mankomunitatea, Ondare Kultur Taldea, Oihane Soroa, Esti Gastesi, Itziar Egidazu, Lontxin Zubillaga, Agurtzane Altuna eta Mayka Sambruno.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra





## Araxes ikas komunitateko talde interaktiboak

2017an Ikas Komunitateko (IK) bidea hasi genuen Beteluko Araxes Eskolan. Bidean aurrera goaz ekintza arrakastatsuak eginez. Ekintza horietako batzuk 2017-2018. ikasturtean jada martxan jarri genituen: tertulia literarioak eta talde interaktiboak. Ikasturte honetan ere ekintza hauek egiten jarraituko dugu eskolan.

Talde interaktiboetarako dagokienez, modu laburrean zertan datzan azalduko dizuegu: irakasleak gela talde txikitik banatzen du eta talde bakoitzean heldu bat dago. Talde horretako helduaren lana irakasleak proposatutako jarduerak horretan ikasle guztiek parte hartzen dutela ziurtatzea da. Helduak ez du jarduerak egiten, ziurtatzen duen bakarra da ikasle guztiek parte hartzea eta elkarri laguntzea.

Talde Interaktiboetarako helduak behar ditugunez, zuen parte hartzea eskatzen dugu oraingoan ere. Komunitatea garen neurrian, Komunitateko edozeinek hartu dezake parte ekintzetan (guraso, anai-arreba, ai-

tona-amona, lagun, bikotekide, ezagun, etab.). Ekintza honekin urrian hasiko gara. Beraz, iraileko hilabete guztian zehar izena ematera animatzen zaituztegu.

Eskolako sarreran apuntatzeko orri bat jarriko dugu. Orri horretan zein mailatan parte hartzea gustatuko litzaizuekeen jarri dezakezue. Irakasleek informazio hori hartuko dute kontuan jarduerak antolatzeneko. Irailean apuntatzen zarenenkin lanean hasiko gara, baina ikasturte osoan zehar eman dezakezue izena.

Eskolako orrian apuntatzerik ez baduzue, IK-ko posta elektronikoaren bidez egin dezakezue: [ikaskoaraxes@gmail.com](mailto:ikaskoaraxes@gmail.com) ondoko datuak jarritz: Izena eta zein mailatan parte hartu nahi duzuen.

Besterik gabe parte hartzera animatzen zaituztegu.



eskolatik  
mailopera

**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

ANTONIO CARRARO

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)





## UITZIKO TUNELAK ITXIRIK JARRAITZEN DU

Uztailaz geroztik itxita jarraitzen du Uitziko Plazaola Bide Berdeko tunel luzeak. Leitzako Martikoneko tunelean ere erortzeak izan ziren eta itxirik dago. Plazaola Partzuergo Turistikoak Nafarroako Gobernuarekin batera, lanen ari da lehenbailehen konpontze lanak amaitzeko.



## IRAILAREN 15A, AZKEN EGUNA

Irailaren 15ean amaituko da Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateak euskara ikasleentzako eskaintzen dituen diru-laguntza eskaria egiteko epea. Eskaerak Mankomunitateko erregistroan, herritarrari dagokion udaletxean edo Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira. Informazio gehiago: 948 504 400 / [larbeleareuskaraz@iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus)



## PARTE-HARTZE HANDIKO KONTZENTRAZIOAK

Betelu, Arribe eta Uztegiko jaietan euskal preso-oen eskubideen aldeko kontzentrazioak egin dira parte hartze handiarekin. Bertaratu zirenek eskerrak eman nahi dizkiete festetako batzordeei, jaietan ere borroka hori ikustarazteagatik.

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Haydee Calderon (Iribas)

**Pesta giroan ongi  
moldatu al zara?**  
momentu batzuetan  
euki dut aukera.  
nahiz ta jendez gainezka  
ematen dun ikara,  
primeran ibili naiz  
batetik bestera.

Oraindik ere asko  
gelditzen **dira**,  
juerga bat bukatu ta  
hurrengora **birra**.  
programak ikusteko  
mailopen **begira**  
herrietako pestek  
badute **dizdira**.

Doinua: Iturengo arotza.

### Maddirentzako oina:

Sanfermin hauetan ez da aittu salaketa larriegirik

### Puntuak:

Alperrik, ikusirik,  
gorderik, aldarririk.



# “Lekunberrira etorri nintzenean, ez nekien nola biziko ote nintzen”

*Julia Hernándezek 35 urte daramatza Lekunberrin bizitzen. Horietatik 23 Jubilatuetan lanean ibili da, joan den urrian erretiratu egin zen arte. Lekunberriarrok eta larraundarrok aski ezaguna dugu Julia. Zer-nolako pazientzia izan duen umetan, plazan besterik ez zegoenean, Jubilatuetara joan eta hainbeste goxokiren artean auke-ratzeko gutxienez minutu osoa behar genuenean, zenbat otordu eskaini dizkigun, zenbat mozkorraldi aguantatu...*

## **Julia, zu Dominikar Errepublikan jaioa zara...**

Bai, Santiago de Los Cabalerosen. Dominikar Errepublikako lehenengo hiriburua Santo Domingo da eta bigarrena Santiago de Los Cabaleros. Han jaio nintzen ni.

## **Eta zenbat anai-arreba zineten?**

Sei, baina bat hila da. Ni zaharrena nintzen. Hiru anaia eta hiru ahizpa ginen. Bat Puerto Ricon bizi da, beste bat Santo Domingon eta bi Estatu Batuetan. Ni nago urrutien.

## **Zer moduzko haurtzaroa izan zenuten?**

Alorrera joaten ginen amonarekin. Nire amona Pedro García izeneko herri batean bizi zen eta kafe zelaia zeuden han. Oporretan bisita egiten genion eta kafea biltzen laguntzen genion.

## **Eta zuen gurasoek zertan egiten zuten lan?**

Aita nekazaria zen. Platanoa, anana,

azukrea eta bestelakoak landatzen zituzten. Ez genuen goserik pasatzen, baina ez ginen aberatsak.

## **Zuk bederatzi urte zenituenean, amarekin Santo Domingora joan zinen bizitzera...**

Bai. Han, gure amak, Rafael Bonnelly lehendakari ohiaren etxean egin zuen lan. Ezagun bati esker, beka bat lortu zuen nik mojen ikastetxe batean ikas nezan. Mojekin hezi izan nintzen hemezortzi urte bete nituen arte. Ondoren, ile-apainketa ikasten hasi nintzen bertako institutu eza-gun batean eta ondoren ile-apaindegi batean hasi nintzen lanean.

## **Ezkondu ere egin zinen han, ezta?**

Bai, 23 urterekin ezkondu nintzen eta Eduard, nire semea, bertan jaio zen.

## **Eta gero, nola sortu zen hona etortzeko aukera?**

Garai hartan, jada semearen aitaren-gandik banatu nintzenean, amaren etxean bizi nintzen, lan egiten nuen eta nire semeaz arduratzen nintzen. Baina amak Espainiara joateko esaten zidan. Umetan Kuba eta Espainia gustatzen zitzaizkidala esaten omen nuen eta amak hori gogoan zuen. Gaztea nintzela eta bertan ez gelditzeko esaten zidan. Espainiara joateko, han gizon onen bat ezagutu nuela. Espainolez hitz egiten zutela, oso katolikoak zirela... [Kar, kar, kar]. Nik ezer jakin gabe, pasaporte eta hegazkin txartela erosi zizkidan. Lehen gurasoek esandakoa egiten genuen gehienetan. Nik ez nuen batere argi, baina Espainian ordurako lagun bat banuen eta hark ere joateko esaten zidan, lana aurkituko zidala.

## **Baina Espainiara iritsi eta ez zinen zuzenean Lekunberrira etorri...**

Ez. Azaroan iritsi nintzen Bartzelonako aireportura, 1979an. Izugarritzko hotza

Erretiratu eta gero, oraindik faltan botatzen du Jubilatuetako martxa. Arg: J.A. Garaikoetxea.



egiten zuen eta ni traje fin batekin etorri nintzen. Nire lagunak andre bat zaintzen egiten zuen lan eta andre horrek ba omen zuen laguntza behar zuen adineko koinata bat Lleidan. Hara eraman ninduten. Ni Santo Domingotik etorria eta Lleidan elurra bota eta bota.

### **Eta Eduard zure amarekin geldituzen, ezta?**

Bai, amak ni ez arduratzeko esaten zidan, Espainiara joateko eta berak zainduko zuela haurra. Nola sufritu zuen ume gaixoak... Nik dirua eta gauzak bidaltzen nizkien. Urte eta erdiren ondoren Lleidatik alde egin nuen. Izugarriko depresioarekin nengoen. Nik etxera joan nahi nuen. Azkenean, Tarragonan beste lan bat aurkitu nuen eta hara joan nintzen. Bertan ezagutu nuen Angel.

### **Angel Abete, zure senarra zena...**

Bai. Angel Funeskoa zen, baina Lekunberrin bizi zen eta Tarragonan ezagutu genuen elkar. Hasieran, nik ez nuen ezer jakin nahi, baina bera tematia izan zen, eta telefonoz hots egiten zidan, eskutitzak bidaltzen zizkidan... Azkenean konbentzitu eta Lekunberrira etorri nintzen behin bere familia ezagutzera eta 1984ko maiatzaren 19an ezkondu ginen.

### **San Migel Santutegian...**

Bai, hori ere egun euritsua izan zen. Hasieran gaizki pasa nuen klimarekin, baina ohitu egin nintzen. Angelek hemen ez nuela asko iraungo esaten zidan. Dantzatzea asko gustatzen zait, baina mojekin hezia naiz eta ez zait leku batetik bestera ibiltzea gustatzen eta horrek asko lagundu zidan hemen.

### **Eta berehala hasi al zinen Jubilatuetan lanean?**

Angel lanera joaten zen eta ni etxean



Otordu asko eta asko eskaini ditu Juliak Jubilatuetan.  
Arg: J.A. Garaikoetxea.

bakarrak gelditzen nintzen. Bizilagun baten ama zaintzen hasi nintzen eta gero, egun batean, Ayestaran hotelean lan egiteko hartu ninduten. Hiru urte baino gehiago ibili nintzen hotelean. Gustura nengoen, baina Jubilatuen Klubean lan egiten zutenek uzteko asmoa zutela entzun nuen. Vicenta Okiñenak bertan gelditzera animatzen ninduen. Jubilatuetan zaharrak besterik ez zeudela eta ni gaztea nintzela! [Kar, kar]. Goizeko hamarretatik seiataraino hotelean lan eginez hobe ibiliko nintzela, gero egunaren gainerako orduak seme-alabekin egoteko denbora izanen nuela eta han berriz egun osoan eman beharko nuela... Nire senarrari ere ez zion grazia handirik egin, baina nik erabakia hartua nuen eta pauso bat gehiago eman nahi nuen bizitzan. Udaletxera joan nintzen eta Joxe Mari Aierdik neronek hartzeko baimena eman zidan.

### **23 urte eman dituzu bertan lanean. Zein da urte hauen guztien ondoren egiten duzun balorazioa?**

lazko urrian utzi nuen eta Lekunberriko jaietan egin ohi den jubilatuen bazkarian omenaldi txiki bat egin zidaten Ayestaran Hotelean. Polita izan zen. Orduan jakin nuen 23 urte eman nituela... Momentu onak eta txarrak pasa ditut. Hilabeteko azken



*“Ez zait leku batetik bestera ibiltzea gustatzen, eta horrek asko lagundu dit”*



*“Berriro jaioko banintz, ez nuke ostalaritzan lan egingo”*

asteazkenetan bazkaria prestatzen nien jubilatua bertan elkartzeko eta orduan ere batzuetan zoriondu egiten ninduten janaria oso ona zegoelako, beste batzuetan akatsaren bat edo beste ateratzen zidaten... Ez da asmatzen erraza. Ni berriro jaioko banintz, ez nuke ostalaritzan lan egingo. Oso lan lotua da, eta batzuetan behar baino gehiago pairatu behar duzu bezeroen aldetik. Nik jenio txarra dut batzuetan, baina pertsona guztiakin ongi moldatu izan naiz beti. Harreman ona dut denekin.

#### **Bereziki estimatu izan duzun inor bada?**

Laguntza handia jaso dut jende askoren aldetik, baina niri gehien lagundu didana “Bedaio” (Jesus Mari Agirrezabala) izan da. Berak badaki sukaldean eta beti laguntzeko prest egoten zen. Sukaldean sartu eta arraina banuen hark garbitu eta moztzen zidan. Eta lanez gainezka ikusten baninduen, laguntzera sartzen zen. Asko eskertzen diot. Oraindik ere oso harreman ona dut berarekin.

#### **Eta hasieran, zer moduz hartu zintuzten lekunberriak?**

Herriko apaizak Angel emakume amerikar batekin ezkontzera zihonaren berri eman zuenean, mundu guztiak beltza nintzela esaten zuen, “la negrita, la negrita...”. Gero, herrira iritsi nintzenean eta ikusi nindutenean, orduan, esaten zuten ez nintzela horren beltza [kar, kar, kar]. Ongi hartu ninduten, nik harreman ona izan dut beti herritarrekin. Nire

semeak okerrago pasa zuen. Eduard, Eli jaioko aurretik etorri zen, bederatzik urterekin. Bere adineko mutikoak berarekin sartzen ziren eta nik ueste nuen ez zuela jasango eta berriro ere nire amarekin bidali beharko nuela. Baina pixkanaka moldatu zen.

#### **Etorri eta urte gutxira alargun gelditu zinen, Julia...**

Bai, ezkondu eta lau urtetara hil zen, egun berean, 1988ko maiatzaren 19an. Bakarrik egin nuen aurrera eta gozotik zorte ona izan dut.

#### **Erretiratu zaren honetan, zer duzu oraindik bizitzan egiteke?**

Orain oso bizitza lasaia daramat. Nahi dudana egiten dut, inori baimezik eskatu gabe. Goizetan kiroldegira joaten naiz igeri egitera eta eguerdian etxera etorri bazkaria prestatu eta arratsaldean Sua, nire txakurra paseatzen dut. Anai-arrebak bisitatzerako joaten naiz noizean behin Estatu Batuetara. Bi biloba ere baditut, Enzo eta Irati eta horietaz ere gehiago gozatzeko tarteak ditut orain. Egia da batzuetan bakarrik ere sentitzen naizela, tabernan beti jende artean ibili izan naizelako eta batzuetan saltsa hori faltan somatzen dut. Jende asko ezagutu dut Jubilatuetan. Jubilatutaldea asko etortzen ziren bazkaltzera kanpotik ere. Eta asteburuetan umez beteta izaten nuen taberna. Ilaran jartzen ziren goxokiak erosteko. Eta orain berriz, horietako asko eta asko dagoeneko euren seme-alabekin ikusten ditut. Faltan botatzen dut, baina, pozik nago.



lazko Lekunberriko  
Pilarika jaietan egindako omenaldian.  
Arg: J.A. Garaikoetxea



# #emanlikeeuskarari

## Matrikula zaitez euskaltegian

2018/2019 IKASTURTEA  
DIRU-LAGUNTZAK MATRIKULATZEKO  
948 012 012



[www.euskaralkasi.nafarroa.eus](http://www.euskaralkasi.nafarroa.eus)



### ANTOLATZAILEAK

Euskarabidea eta toki entitateak:

Aezkoa, Acíz / Agoitz, Ansoáin / Antsoain, Aranguren, Auritz / Burguete, Barañain, Basaburua, Berrioplano / Berriobeiti, Berriozar, Burlada / Burlata, Cendea de Olza / Oltza Zendea, Erra, Estella-Lizorra, Esteribar, Etxauri, Galar, Huarte / Uhartea, Imotz, Lizasoain-Amiasgoiti, Luzaidé / Valcarlos, Mancomunidad de Irontzu / Irontzuko Mankomunitatea Mancomunidad de Valdizarbe / Izarbelbarko Mankomunitatea, Odieta, Orkoien, Pamplona / Iruña, Puente la Reina / Gares, Sakana Mankomunitatea / Mancomunidad de Sakana, Salazar / Zaratzu, Tafalla, Ultzama, Valle de Arce / Artzibar, Valle de Egúés / Eguesibar, Valle de Roncal / Erronkaribar, Villava / Atarrabia, Zizur Mayor / Zizur Nagusia.

Nafarroako  Gobierno de Navarra  euskarabidea

### LAGUNTZAILEAK

Nafarroako euskaltegiak



NAFARROAKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIAK  
ESCUELAS OFICIALES DE  
IDIOMAS DE NAVARRA

## Berriz berandu?



●● Andrea Etxarri

Aupa Mikel! Uda aprobetxatzen? Ni aurreko astean lagun batzuekin geratu nintzen arratsalde pasa. Goizetik plana egin nuen buruan: zer ordutan atera lanetik, zenbat neukan etxeraino kotxez, zenbat denbora beharko nuen prestatzeko... Baina, hala ere, berandu iritsi nintzen. Ez da gertatzen zaidan lehen aldia, eta nire kasuan denborari probetxua ateratzeko ordua baino lehen beste zerbait gehiago egiteko tartea dudala pentsatzen dudalako da. Hori eta txikitik, itxaron behar izaten nuenean, aitzak itxaroten jakitea garaiz iristea baino garrantzitsuagoa zela esaten zidalako.

Lagun artean, familian, lanean... beti izan da eztabaida. Badaude norbait berandu iristeari garrantzia gehiegi ematen ez diotenak, baita errespetu falta moduan hartuta haserretzen direnak ere. Behin kuriositateak bultzatuta informazioa bilatzen jarri nintzen.

Alde batetik, zenbait ikerketek adierazi dute berantiar kronikoek ez dutela puntualak direnen denboraren pertzepzio bera. Zera eskatzen zieten, liburu bat irakurri eta minutua igaro zela uste zutenean botoi bat sakatzeko. Puntualentzat 60 segundoak lehenago pasatzen ziren eta 58 segundo inguruan sakatzen zuten botoia, berantiarrek, 77 segundora. Beraz arrazoi fisiologikoak gure alde ditugu berantiarrok, kar kar. Hala ere, badaude beste zenbait arrazoi, kasuan kasu, horrela irakatsitakoa, denbora kudeatzeko zailtasunengatik, izaera nartzisistagatik, itxaroten egoteko deserosotasunagatik...

Gainera, bertan zioen oso puntualak zirenek izaera oso antolatua eta grinatsua izateko joera zutela (nork ez du entzun "Zer ordu dira hauek?, Non zinen hain berandu iristeko?" aurpegi txar batekin lagunduta), bigarrenek aldiz izaera lasaia eta irudimentsuagoa. Zer izango da errazagoa, berantiarrek puntual iristea ala puntualak pazientzia garatzea?



●● Mikel Hernandezena

lepa Andrea!!! Uda ongi aprobetxatzen bai, ziztu bizian igarotzen da eta. Ezetz ematen du baina, denbora aipatu duzula eta, behar duen garrantzia eskaini behar zaiola uste dut, eta horren baitan sartzen da puntuala edo berantiarra izatearen kontua.

Niri ere askotan gertatzen zait norbaitekin geratu baino ordu erdi lehenago denbora soberan izatearen sentrazio hori. Baina gero, ordua iritsi ahala, erlojua ziztu bizian igarotzen da, eta azken aldian puntualtasuna hobetu badut ere, batzuetan minutu batzuk beranduago iristea ohikoa da nire kasuan. Zuk diozun bezala, denborari probetxua ateratzeko, ordua baino lehen beste zerbait gehiago egiteko tartea izatearen konbikzioa izan daiteke.

Hala, niri puntual iristea gustatzen bazait ere, lekuetara denboraz justu iristen naiz, eta bidean edozein arazo edo ezustekoren bat izanez gero, berandu iristen naiz. Nire ustez, ordu batean norbaitekin geratuz gero, ordu horretarako pertsona horrekin edo pertsona horiekin egon behar zaren lekuan egotea zintzotasunez jokatzeko da, ez soilik haiekiko, baizik eta zure buruarekiko ere. Azken finean, beste aldean jarrita, nik uste, atseginagoa dela ordurako pertsona guztiak geratutako lekuan egotea norbait itxaron beharraren kezkarekin egotea baino.

Honi lotuta, nire ustez, eguna gauza ezberdinak egin igarotzean, hobeto antola daiteke norbera, eta antolamendu horren baitan, izan daiteke ekintza asko dituen pertsona bat askoz ere antolatuagoa eta puntualagoa izatea. Izan ere, askotan gerta daiteke ordua iritsi baino lehenago gauzak egin ditzakezula izatearen sentrazio hori minutu hilak edukitzeagatik izatea. Hala bada, nik uste, laburbilduz, puntualtasuna garrantzitsua dela gure eguneroko bizitzan, bai gurekiko eta baita besteekiko ere.







**Hodei Beloki Garaikoetxea**  
Irailaren 28an, bi urte.  
*Zorionak ttiki!!! Familia guztiaren partez.*



**Enai Albeniz Maiza**  
Abuztuak 9, urte 1.  
*Zorionak Enai!!! Muxu haundi bat etxeko izarrari aitaxo ta amatxoren partez.*



**Haizea Aldaregia Balda**  
Irailaren 8an 3 urte.  
*ZORIONAK POLITTE!!! Oso ongi pasa zure egunean ta muxu potolo bat zuretzat!!!*



**Amaia Huarte Martija**  
Irailaren 18an, 45 urte.  
*Urte askotarako eta egun on ona pasa, Gastesikoen partez.*



**Unai Garmendia Huarte**  
Irailaren 21ean, 16 urte.  
*Urte askotarako eta egun on ona pasa, Gastesikoen partez.*



**Elene Aguirrezabala Iriarte**  
Irailaren 15ean, 6 urte.  
*Zorionak Elene!!!! Gure etxeko printzesa haunditzen ari dela. Segi alai ta jatorra izaten maitia. Muxu pottolo bat Danel, aitte, amatxo eta Arribeko familiaren partez, bereziki Aner eta Eriken partez.*



**Libe Garcia Azpiroz**  
Abuztuaren 9an, 4 urte.  
**Gorka Garcia Azpiroz**  
Uztailaren 21ean, urte bat  
**Laila Azpiroz Perurena**  
Irailaren 6an, urte bat  
*Zorionak familiako 3 txikiei! Alaitasun ederra daukagu zuekin. Muxu potoloa, zuen familia.*



**Maite Zubiria**  
Irailak 7.  
*Maitetxu, zorion bikoitza, urtebetetze ta ezkontza, hok goxotzen dute bihotza. alaituz gure bizitza! Maite, Maite, zu gure bihotzean, ai, ai! Maite, Maite zu gure bihotzean. Muxu goxo bat. Zure kuadrilla.*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak, berriak, eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU  
Telf: 948 51 30 88  
[maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)

## AUZOLANEAN GARBITOKIAK BERRESKURATUZ

Ondare Kultur Taldeko kideak Larraungo hainbat garbileku berreskuratzeko lanean ibili dira buru-belarri. Ekainean, Astizko aterpeak antolatzen dituen udalekuetara Bizkaiatik etorritako gazte-txoekin batera, herriko lixu-tokia garbitu zuten. Lan ederra egin zuten bertako belarrak eta zaborrak biltzen.

Bestetik Albiasuko eta Lekunberriko garbilekuak ere garbitu dituzte. Lekunberri egun eta erdi eman zuten garbilekuko partean margotzen eta zurak eta harriak garbitzen. Hamabost lagun inguru elkartu ziren bertan.

Baina benetako auzolana Uitzin egindakoa izan zen. Lau egun eta erdiz aritu ziren bertan. Juanjo Zubieta, Ondare Kultur Taldeko kidea: *"Uitziko garbilekua oso zaharkiturik eta egoera kaxkarrean zegoen. Teilatua guztiz berritu behar izan genuen. Paretak egonkortu eta barnealde guztia garbitu eta margotu genuen. Egunero 20 lagunetik gora elkartu ginen. Herritarren aldeko inplikazioa izugarria izan zen, txikienek ere ahal zuten neurrian lagundu zuten. Hainbat otordu egin genituen elkarrekin. Hori izan zen hori benetako auzolana!"*

Ondare Kultur Taldeak eskerrak eman nahi dizkie auzolanetan lagundu duten herritar guztiei. Udazkenean Oderitz eta Madotz artean egokituko duten trikuharrien ibilbidea prestatzeari ekingo dio.



## ARROPA ETA OINETAKOAK BILTZEKO HIRU EDUKIONTZI JARRI DIRA ARAITZ ETA BETELUN

Araxes Garaiko Mankomunitateak Traperos de Emaús Fundazioarekin elkarlanean arropa eta oinetakoen bilketarako hiru edukiontzi jarri ditu. Edukiontzi horiek finkoak izanen dira eta Atallun (elizaren ondoko aparkalekuan), Arriben (Zubiondoko aparkalekuan) eta Betelun (Donostiako noranzkoan dagoen autobus geltokiaren ondoan) jarri dira. Arropa eta oinetako erabilgarriei bigarren bitzta bat emanen zaie azoken bitartez salduz. Horregatik interesgarria da egoera onean dauden oinetako eta arropen bilketa egitea. Bestetik, oinetako hautsiak eta egoera txarrean dauden arropak ere bildu eta birziklatu egingo dira.

Araxes Garaiko Mankomunitatetik ohartarazi dute, ezinbestekoa dela edukiontzira botatako arropak eta oinetakoak poltsetan sarturik botatzea, batez ere ondorengo bilketa eta sailkatze prozesua errazteko, oinetakoetan bikoteak ez galtzeko eta zenbait arropetan kalterik ez eragiteko.





## EUSKARALDIAREN ALDEKO PHOTOCALLEKO ARGAZKIAK MAILOPEKO ATARI DIGITALEAN IKUSGAI!

Uda honetan, gure herriko jaietan Euskaraldiaren aldeko argazki sesioak egin dira. Herriz herri ateratako argazki guztiak Mailope aldizkariaren webgunean ([www.mailope.eus](http://www.mailope.eus)) ikusgai daude dagoeneko. Gogoratu irailetik aurrera, azaroan egingen den Euskaraldiko izen-ematea sustatzeko jarduerak antolatuko direla.



## BETELUKO OSTATUKO ERAIKINAREN TEILATUA BERRITU EGINGO DU BETELUKO UDALAK

Udazkenean ekingo dio Beteluko Udalak herriko ostatuaren eraikineko teilatuaren berritze lanei. 183.000 euroko inbertsioa izango da, baina Nafarroako Gobernuko Azpiegitura Planaren bitartez, %50eko diru-laguntza jasoko du. Dagoen teilatua erabat kendu eta berrituko da. Diru-laguntza eskaera 2017an egin zen, eta berritze lan hauek 2019rako programan sartuta bazeuden ere, Nafarroako Gobernuak lanak aurreratzeko aukera eskaini dio Beteluko Udalari. Mikel Rekalde: *“Udazken garai ona da halako berritze lan bat egiteko eta beraz, urte amaiera baino lehen egitea espero dugu”.*

# Ametsak ke

Estatu Batuetan ia bi urte emanen dituen neska. Erasmus bekari esker, Danimarkan sei hilabetez bizi izan zena. Txilera hilabetez joan dena. Japoniera ikastera Tokyora bidaiatzeko erabakia hartu (eta gauzatu) duena. Motxila hartu eta Indiara joandakoa (...).

Hartu tartetxo bat eta pentsatu. Zenbat eta zenbat jende ezagutzen dugu, arazorik gabe, herrialdea utzi eta oporretan, ikastera edo dena delakora joan dena. Eta zer gutxi pentsatzen dugu kontrakoa gertatzen ez denean.

Vietnamgo neska bat ezagutu dut, kostako Da Nang hirikoa. Duela lau urte etorri zen Ingeniaritza Zibila bertako unibertsitatean ikastera. Orain gradua amaitu du eta bere ametsa hemen gelditzea da: nahi duen masterra egin, lana bilatu... Are gehiago, hasia da curriculum bertako enpresa ezberdinetan botatzen eta dagoeneko hiruzpalau elkarrizketa egin ditu eta horietatik bik interesa erakutsi dute. Etorkizuna bertan margotu dezakeela ikusi du. Hobeki esanda, etorkizunari kolorea ematen hasi zaio. Lau urtetan, etxe bihurtu du Erresuma Batua.

Baina ametsak ke bihurtu dira oraingoan, Da Nango gobernuak ez dio egonaldia luzatzen utziko. Hemezortzi urterekin kontratu bat sinarazi zioten, atzerrira joateko aukera eman ziona. Baina baldintza

batekin: gradua batezbesteko nota ia bikain jakin batekin bukatzen ez bazuen, Vietnamera buel-



tatu beharko zen eta, bueltatzean, hiriko udalak lan aukerak mahai gainean jarriko zizkion.

*"Jakin gabe, nire etorkizuna haien esku utzi nuen", dio behin eta berriz,*



Arg: Unsplash.

Behin-betiko ezetza jaso aurretik, hiriko udalarekin harremanetan jarri zen bere egoera, ametsak eta nahiak zeintzuk ziren azaltzeko. Hori gutxi balitz, masterra berak ordainduko zuela jakinarazi zien, bazekielako Da Nango udalak ez ziola diru gehiagorik emanen. Bisa luzapen bat eskatu nahi zuen, besterik gabe. Ezetz esan zioten. Kontratuak argi zioen.

Orain etorkizuna Vietnamen irudikatzen behartzen du bere burua. Da Nango udalak lana eskainiko dio departamentu ezberdinetan, baina ez daki zer baldintza izanen dituen.

*"18 urte nituen eta atzerrira joateko aukera ematen dizutenean, birritan pentsatu gabe sinatzen duzu. Hegan egin nahi duzu, saltzen dizuten ametsetako Europara".*

Eta guk arazorik gabe bidaiatu dezakegu sudur puntan jartzen zaigun edozein herrialdetara. Bisa luzapena eskatu nahi badugu ere, arazo askorik ez digutela jarriko esanen nuke. Pasaporte europarra dugulako, zuriak garelako, eta horrek ematen dizkigun pribilegioei buruz gutxi pentsatzen dugu. Inertziak bailiran.

luze



# “Erreka Irekia”

Kaixo irakurle. Udara hasieran gaudu, Arantxak zintzo, berriz, beste gai bat eskatu, ez dut denbora askorik epean aurkezteko, gaur bertan banoa... Ohartu naizen arte leku berezi batetara noala eta horretaz hitz egin dezakedala. *Río Abierto* deitzen den mugimendu praktika bat egiten hasi nintzen orain dela bost urte. Sekulako mesedea egiten zidala ikusita, orain hiru nik neuk eman ahal izateko formakuntza egiten hasi nintzen. Gaur noa hiru urte hauen azken ikaskuntza saiora. Aukera ona dela iruditu zait zuei praktika honen berri emateko.

Ipar Ameriketara sortu zen *Río Abierto*, 1966an Maria Adela Palaciosen eskutik. Gaur egun munduko hamaka herrialde ezberdinetan zabaldu da, Espainia, Frantzia, Alemania, Errusia (Euskal herrira ere bai jada?)... Gizakiaren berezko izaera garatzea da bere helburu nagusia, horretarako tresna ezberdinak erabiltzen dituelarik, mugimendudantza, adierazpena, antzerkia, masajea, erlaxazioa... Saia nadin lehen hauetan jartzen hiru urte hauetan ikasi ditudan gauza nagusiak, niri zinez sekulako mesedea egin didatenak.

Gizaki guztiok daukagu berezko “distira” bat, berezko konfiantza, gaitasunak, alaitasuna, ongizatea... Baina bizitzan gertatzen joan zaizkigun gauzengatik, hezkuntzagatik, esperientzia txarregatik, beldurrengatik, gure izaera eta adierazpena mugatzen joaten gara. Gure gorputzak gordetzen ditu adierazi gabeko horiek, bi modu nagusitan



ikusi ditzakegu, bat “oztopoak” dira, gorputzean gelditzen zaizkigun gogortasunak, gure barne energia normal pasatzen uzten ez dutenak. Ondorioz, gure gorputza forma bereziak hartzen doa, “plastikak” deitzen zaiona, eta plastika hauek gure izateko era mugatzen dute.

Mugatzen gaituen arazoietako bat bada nola izan behar garen “mugatzen” dugula, polaritate sistema baten alderdi bakarra onartzearen ondorioz. Onartzen dugu langileak izatea baina ez alferrak izatea, onartzen dugu alaiak izatea ez tristeak... Ondorioz, gure izaeraren alderdi pila mugatuak eta erreprimituak ditugu. Familiakoekin izandako harremanak ere asko mugatzen gaitu, maita gaitzaten nola izan behar dugunaren barne ideia asko egiten ditugu eta bizitza guztian zehar eta oharkabean horiei fidelak izaten jarraitzen dugu, gure aukera propioak

mozten ditugularik. Esan beharra dago hau intentzio txarrik gabe gertatzen dela, kontrakoa, baina azpian beldur eta gezur dezente daudela, beraz, kaltekoak.

Gizakia hobeto ulertzeko, pertsona hiru energia zentro nagusitan bantzen da. Beheko zentroa, pelbis inguruan kokatua, lurrarekiko lotura, instintua, plazerra, etabarrekin loturik dagoena. Zentro emozionala saihesten bueltan dago, emozioak, norbere buruarekin eta besteekin harremana kudeatzen duen energia dagoelarik. Buru inguruan “argiaren erdigunea” dago, gaitasun intelektualekin eta baita bestelako esferekin ere komunikatzeko gaitasunarekin. Gure barne funtzionamenduan zentro hauen oreka oso garrantzitsua da, ezin dugu bat bestea baino gehiago garatu. Plastikak ere erakutsi ahal digute zein zentro dugun garatuago eta zein dugun “ezkutatuago”.

Astero egin ditugu klaseak hiru urte hauetan, urtero 6-7 asteburu intentsibo ere. Azken urtean klasean praktikak eta baita 18 ordu guk sortutako taldeetan (Nererekin Ibarberrin gustura egin ditugunak!) Masaje praktikak, liburu irakurketak, anatomia ikasketak... Lan pertsonala ikaragarria izan da, eta banatze ko gaitasuna ere ikusten diot nire buruari, baina auskalo... Gaur banoa 5 egunetara “ofizialki” azken ikasketak egitera. Gero, nire eta besteen ongizatea izan dadila ekintzaren gidari. Aurrera ba Erreka irekiak!



Zabal

# Minbiziaren aurkako borrokan galdu eta irabazitakoak

*Maider Otegik hiru urte daramatza sendaturik. Orain dela bi urte gelditu zen alargun Beteluko Lontxin Zubillaga, Garbiñe Sasiain bere bikotekidea bularreko minbizi baten ondorioz hil eta gero. Eta oraindik, sendatze bidean da Belen Miguel. Duela urte eta erdi leuzemia diagnostikatu zioten. Hiru kasu dira, hirurek bizipen asko dituzte amankomunean, baina era berean, egoera guztiz ezberdinetan egon dira.*

Geroz eta gehiago dira “minbizia” taldearen barruan diagnostikatzen diren gaixotasunei aurre egin behar dietenak. Kasuak, era beldurgarrian ugaritzen ari badira ere, oraindik gizar-tean gaiaz normaltasunez hitz egitea kosta egiten dela dirudi. Hona hemen, minbiziaren aurkako borroka gertutik ezagutzen duten hiru pertsona, Mainer, Lontxin eta Belen.

“Ni honetaz ez naiz hilko, e!”, horiek izan ziren Belen Miguelek zurbil gelditu zen senarrari esandako lehen hitzak, medikuak, leuzemiaren berri eman zion unean. Maiz, gaixoaren ingurukoentzat, psikologikoki gogorragoa suertatzen da minbiziari aurre egitea. Hala uste du Mainer Otegik. Betelun bizi den 33 urteko auriztarrari 2011. urtean diagnostikatu zioten Hodgkin linfoma.

“Umetatik izan dut dermatitisa azalean, baina ETBko El conquistador saioan parte hartu eta gero, izugarritzko azkureak izaten hasi nintzen, lorik ezin egitera iristeraino. Dermatologoarengana joaten hasi nintzen, baina hark emandako sendagaiek ez zidaten azkurea kentzen. Azkenean, plakak egin eta ingresatu ninduten arte”.

Lehenengo aldiz, toraxean aurkitu zioten linfoma Maiderrri. Hezur azpian aski ongi ezkutaturik zegoen hamar zentimetroko linfoma. Baina, espezialistara egindako hurrengo bisitetan, ugaritzen joan ziren kalte-tutako gorputz atalak. Puntu bat toraxean, gero beste puntu bat biriketean, hurrengo bisitan gibelean aurkitutako bat, eta bizkarrezurreko lau-





garren lunbarrean beste bat. Zenbait kimioterapia eta erradioterapia saioekin desagertu ziren denak. Baina handik gutxira, toraxeko puntu hura, berriro ere, hor zegoen. Kimioterapia mota aldatu eta 2012ko abenduan hezur-muinaren autotransplantea egin zioten.

*“Autotransplantea izan zen niretzat tratamenduaren momenturik latzena. Hogei minutu baino ez ziren izan, baina nire zelulak atera ondoren, berriro sartzeko momentu horretan buruak eztanda egingo zidala sentitu nuen, botaka egin eta ezin, ito egingo nintzela uste nuen”.*

Gabon haiek ez ziren errazak izan Mainerrentzat eta bere familiarentzat. Baina pasa ziren Gabonak eta pasa zen Aste Santua. Uda iritsi eta Bete-luko sanpedroetarako sendaturik zegoela zioten azkeneko probek. Udazken aldera ordea, azkurea nabaritzen hasi zen. Hortxe zegoen berriro ere toraxeko puntu hura. *“Psikologikoki oso gogorra izan zen une hura. Bi edo hiru urte neramatzan tratamenduekin eta uste dut medikuen aurrean negar egin nuen aldi bakarra, momentu hartan izan zela. Berriro ere hau eta bestea egin beharko nuela, lasai egoteko... Nire gorputzean eragin handia zuten kimioterapia saioek, oso nekatuta gelditzen nintzen, eta ezin botaka egiteari utzi. Eta guraso eta anaiarentzat ere oso gogorra izaten ari zen, batez ere amarentzat, berak momenturik onenetan eta okerrenetan ikusi naue-lako, beti nire ondoan. Eta gogorra zen niretzat psikologikoki beraiengandik*



Maidar dagoeneko guztiz osaturik dago eta bere afizio handienetako batetaz goza dezake, mendiaz. Arg.: Maidar Otegi utzitakoa.

*tiraka jarraitzea. Nik indarra jasotzen nuen beraien aldetik, baina nik ere indar asko eman behar nienaren sentsazioa nuen”.*

2013ko udazkenean izan zuen horren berri eta 2014ko Aste Santuan alotransplantea egin zioten Mainerri. Bere zelulek ez baitzuten lortu gaixotasunari aurre egitea eta hurrengo aukera muin-emaile baten zelulekin saiatzea zen. Beraz, hezur-muina berriro garbitzeko kimioterapia tratamendu berri batekin hasi zen muin-emailea aurkitu bitartean. Behingoz, zortea bere alde izan zuen eta Kanadan, bere adintsuko mutil bat aurkitu zuten. %100 bateragarria zen muin-emaile bat. *“Oso zaila da hori, medikuak harriturik zeuden. Amari ere galdetu zio-*

*ten ea han ez ote zuen beste semerik?”* [Kar, kar, kar].

Gazte haren zelulen transfusioarekin amaitu zen Mainerren amesgaiztoa, eta gaur egun, dagoeneko, bizitza normala egiten du. *“Muin-emaileak guztiz anonimoak dira, badakit nire adineko mutil bat zela eta Montrealeko ospitaletik atera zela, baina informazio gehiago eskatzeko urte batzuk pasa behar direla dio hemengo legediak. Segurtasun neurriak dira, batez ere muin-emailei ekonomikoki eskertzea, eta halakoak saihesteko. Uste dut eskertzeko modu asko daudela. Etorkizunean eskutiz bat bidaltzea gustatuko litzaidake nire argazkiarekin batera eta noizbait Kanadara joaten banaiz, berarekin kafe bat hartzea. Ez diot ezer ordaindu be-*



Minbiziaren gaia gizarteratzeko beharra dagoela uste dute hirurek.  
Arg.: Labrit.

*harririk. Muin-emailek boluntarioki egiten dute eta uste dut muin-emaile gisa zure zelulek norbaiti lagundu diotela jakitea dela pozik handiena”.*

Autotransplantearekin aski izan du Belen Miguelek, 2017ko urtarri-lean diagnostikatu zioten leuzemiari aurre egiteko. 50 urteko tolosar honek, urte asko daramatza Lekunberrin bizitzen. Hilabete batzuk lehenago, irailean, eskumuturra hautsi zuen, baina sendatu zitzaionean, nekatua zebilela sumatzen hasi zen. Urtarrilaren hasieran, berriro ere, lanean hasi zen eta aste berean, hilekoa jaitsi zitzaion. Beldurtu egin zen ordea, isurtzen ari zen odol kopurua, ohikoa baino askoz ere ugariagoa zen eta nekea geroz eta handiagoa. Larrialdietara bi aldiz joan eta gero, analitika bat egin

zioten eta bi orduren buruan eman zioten gaixotasunaren berri. Belen: “Ni oso baikorra izan naiz beti. Nire kasuan ospitaleratzeak oso luzeak izan ziren, hilabete oso bat ospitalean bakarturik, ia zure etxekoan besarkada bat ere jaso ezinik. Hori izan zen niretzako gogorre-na. Gaixotasuna dudanetik, kalera ateratzeko izugarritzko beharra sumatzen dut”.

Lehen aldiz ingresatu zutenean, odola sartu zioten, eta ordura arteko nekea bat-batean joan zen. Hurrengo egunean, bere burua transplanteen unitatean ikusi zuenean, ohartu zen gainera zetorkiona ez zela erraza izango. Hilabete baino gehiagoko lau ospitaleratze luze izan ditu Belenek, eta beste zenbait, egun gutxiagokoak. “Kimioterapia tratamendua astean hiru egunez hartzen nuen eta harrigarria da gorputza nola aldatzen den egun batetik bestera. Lehenengo egunean oso gaizki sentitzen nintzen, bigarreanean okerrago eta hirugarrenean pizza jaten ibili nintzen behin nire semearekin. [Kar, kar, kar]. Nik oso plaketa gutxi nituen eta arazoak izan nituen hemorragiekin. Hilekoa etortzen zitzaidanean, odol pixka bat galtzea ere izugarria zen eta denetarik hartu behar izan nuen hori gerta ez zedin”.

Ospitaleratzeak eta gaixotasunari aurre egiteko zenbait prozesu gogor- rarak izan badira ere, Belenek ez du fisikoki sufritu izanaren sentsazioirik.

Belen gaur egun, ohartzen da muin-emaile izateak duen garrantziaz.

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXILON**

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

 panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42



Odol asko sartu baitzioten plaketak igotzeko. *"Mutil bat omen zegoen, nirekin nahiko bateragarria zena. Al-di-ro, berari deika ibili ziren, nazkaturik bukatuko zuela pentsatzen dut!"* [kar, kar, kar].

Odol hori guztia sartzearen ondorioz, gaur egun, burdina gehiegi dauka gorputzean eta pilulak hartzen ari da burdin maila jaisteko. Defentsak berriz, oso baxu dauzka, eta ezin diote txerto bakar bat ere jarri. Oraindik guztiz osatzeko bidea gelditzen bazaio ere, gogorrena pasa du Belenek.

Oso bestelakoa izan da Lontxin Zubillaga beteluarrak minbiziarekin bizi izan duena. Garbiñe Sasiain, bere bikotekideari orain dela lau urte bularreko minbizia zuenaren berri eman zioten medikuek. Ezin izan zion gaixotasunari aurre egin eta 2016ko maiatzaren 6an hil zen 44 urterekin. Hamabi, zazpi eta sei urteko hiru seme-meren ama zen orduan eta Altsasuko institutuan zebilen irakasle. Bere kasuan ere, nekea izan zen nabaritu zuen sintoma nagusia. Gau batean arnasa ezin hartuz hasi zen eta hurrengo goizean sendagilearengana joan zen. Lontxin: *"Ni, goiz hartan, lanera joan nintzen eta Arribeko osasun-etxetik larrialdietara bidali zutenez, han elkartu ginen. Probak egin ondoren, Onkologiara bidali gintuzten, han beste proba batzuk egin, eta egun hartan bertan, bularreko minbizia zela esan ziguten, eta metastasia zuela. Oso azkar*

*izan zen dena. Hezurren bat ere hartua zuela esan ziguten, baina gaztea zela eta hasieratik gaixotasuna geldiarazteko esperantza eman ziguten".* Egun hartan bertan, albistea onartzeko denborarik izan gabe ere, jaso zuen Garbiñek bere lehen kimioterapia saioa. Lontxinek ere baja hartu eta momentu hartan hasi zuen bere borroka. Semeak aitona-amonen etxean utzi eta Garbiñerekin astean bitan joaten zen kimioterapia saioetara, ospitalera. Tratamenduarekin hasi eta bi hilabetera, beste puntu bat atera zitzaion birikan baina handik gutxira gaixotasuna gelditu egin zenaren itxura hartu zioten onkologoek. Etenaldi bat egin zuten, baina berriro ere zabaltzen hasi zen gorputzeko beste ataletan. Ia bi urtez egon zen Garbiñe kimioterapia hartzen. *"Inork ez zidan argi eta garbi esaten hil egingo zela, bagenekien zer den metastasia, baina medikuek ez zuten esperantzarik galtzen eta Garbiñek ere ez. Kimioterapia saio oso gogorak ematen zizkioten, baina berak ongi onartzen zuen".*

Tratamenduarekin ia bi urte zera-mala, Eguberrien atarian, aspaldian inork erantzuten ez zion galdera egin zion Lontxinek ospitalean zebilen mediku bati. *"Ospitaletik etxera gindoazen, eskolan Olentzeroren etorreraren jaia zen, eta elkarrekin joateko asmoa genuen. Garbiñe autoan zegoen, alde egiteko prest. Ez nintzen bere aurrean medikuei galdera hori egitera ausartzen eta inork ez zidan ezer argi-*

***"Bagenekien zer den metastasia, baina medikuek ez zuten esperantzarik galtzen eta Garbiñek ere ez".***



**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**  
ABOKATUAK  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Allí. Tfnoa: 609 130 555



Geroz eta tratamendu berri gehiago egon arren, batzuetan booroka galdu egiten da.  
Arg.: Lontxin Zubilagak utzitakoa.

*rik esaten. Momentu hura aprobetxatu eta inguruan zebilen mediku gazte bat geldiarazi, historiala erakutsi eta zuzenean galdetu nion: -Honek zer esan nahi du? Badakit larria dela, baina zenbat denbora?-. Sei hilabeteko bizi itxaropena izan zezakeela erantzun zidan. Paperak bildu eta Olentzeroren jaialdira! Nik ez nion ezer kontatu, baina biok oso kontziente ginen egoeraz”.*

Eguberriak etxean pasa zituzten, eta ondoren, errutina berdinarekin jarraitu zuten, astean bitan ospitalera joan, eta gero etxera. Garbiñe ez zen ordea, etxean sarturik gelditzen zen horietakoa. Txistua jotzen zuen, herriko abesbatzako kidea zen, herrian edozer antolatzen zela, han zegoen bera... Uda iritsi zen eta ohitura zuten moduan, afaldu eta Errazkingo festetara joateko asmoa zuten biek. Baina, arratsalde hartan, gaizki sentitzen hasi zen. Ospitaleratu eta egun batzuetara, hankak mugitu ezinik gelditu zen. Minbizia hezur-muinera iritsi zen! “Medikuek ez zuten espero halakorik, ezta guk ere. Bularretik behera ezindurik gelditu zen. Onkologiako departamentuan ezin zuten ezer gehiago egin. Minbizia zabaltzen ari zen eta ez zegoen atzera bueltarik. San Joan de Dios ospitalera joatea gomendatu ziguten. Oso gogorra izan zen hura. Garbiñek kimioterapia gehiagorik ez ote zioten eman behar galdetzen zuen eta... Biok genekien zaintza aringarrien erietxe hartara joateak zer esan nahi

*zuen. Hamar hilabetez egon ginen han, eta izugarri ongi sentitu nintzen bertan. Nik beti esaten dut, nonbait hil behar badut, bertan hil nahi dudala. Izugarri ongi sentiarazten zaituztelako”.*

Hilabete haietan zehar, egunero Betelura etortzen zen Lontxin, aiton-amonen etxean zeuden semeekin bazkaldu eta arratsaldea pasatzera. Eta iluntzean, berriro ere, Garbiñerengana. “Guk, hasieratik egia kontatu genien semeei. Eta nik azkeneko hilabeteetan ere ez nien errealitatea ezkutatu nahi izan. Osasuna zaleak dira hirurak eta asteburuetan, amari bisita egitera eramaten nituen ospitalera. Amarekin egon eta gero, kanpoan bazkaldu eta Sadarrera eramaten nituen. Iluntzean, nire anaiarekin etxea bueltatzen ziren eta ni ospitalera, lo egitera”. Horrela zazpi hilabete pasa ondoren, Garbiñeren osasun egoera egonkorturik zegoela zirudienez, etxera bueltatzeko erabakia hartu zuten. Etxean zenbait egokitzapen egin eta ongi moldatu ziren. Eta kalera irteteen jarraitzen zuen aulki gurgildunarekin. “Oso inauteri zalea zen eta urte hartan ere mozorroturik atera behar genuela esan zidan. Tematurik zegoen. Mozorrotu eta karrozekin batera atera eta gero, herri-bazkarira joan ginen. Arratsaldean, etxera joan behar genuela esan nion, baina ez zuen nahi. Bazekien bere azken inauteriak zirela eta gaueko hamarrak arte frontoian egon zen”.

Handik hamabost egunera, okerrera egin zuen, minbizia burmuinera iristen ari zela esan zieten eta ospitalean gelditu ziren. Asteburuetan semeek amari bisita egitera joaten jarraitu zuten, azkeneko bi bisitetan, jada hitz egiteko gaitasuna galdua zuen arren. 2016ko maiatzean hil zen. “Niretzat, alde batetik, lasaitasuna izan zen, azkeneko hilabeteetan izugarri sufritu zuelako. Semeek bazekiten ama gaizki zegoela eta azaltzen genien medikuak eginahalak egiten ari zirela. Gaixotasuna normaltasunez bizi izan zuten, ez zuten traumarik izan eta naturaltasunez egin zioten aurre egoera berriari. Baina, egia da, niretzat, gaixotasunaren ondorengo gogorra goa izan dela”.



# “Egunean egunekoa bizi!”

## **Gaixotasunak iraun bitartean, ingurukoek normaltasunez hitz egiten zizueten gaixotasunari buruz?**

**Lontxin:** Gure kasuan, aulki gurgildunean gelditu zenean, gehienak ez ziren hurbiltzera ere ausartzen.

**Belen:** Nik uste, jendeak ez dakiela zer esan.

**Maider:** Lehen minbizia entzuten genuenean, pentsatzen genuen ez zegoela ezer egiterik, baina, gaur egun, tratamendu asko daude eta sendatu liteke. Eta uste dut hitz egin beharreko gai bat dela. Gaixorik zaudenean normal tratatu zaitzatezela nahi duzu.

**B:** Normalizatu egin behar da. Egia da gorputzean eragina duela eta burusoil gelditzen zarela, baina niri adibidez ez zait behin ere axola izan. Zapia jarri behar banuen zapia, eta bestela, ileordearekin. Niri kostatzen zitzaidan lehenbiziko aldiz kalera irtetea, baina egia esan, oso maitatua sentitu naiz Lekunberriko bizilagunen aldetik.

## **Bizimoduarekin ahalik eta normalen jarraitzeak lagunduko du, ezta?**

**M:** Niri medikuek beti esan izan didate izaerak eta baikortasunak asko laguntzen duela.

**L:** Garbiñeri sei hilabeteko bizi itxaropena ematen zioten eta ia bi urte gehiago eman zituen bizirik eta ni ziur nago bizitzeko zuen gogoarengatik eta zuen indarrarengatik izan zela. Etxean sartuta gelditu izan balitz, berehala joango zen.

**B:** Denok hilko gara lehenago edo beranduago, baina ahalik eta gehien bizitzen saiatu behar dugu, ahal den neurrian eta hemen gelditzen direnei oroitzen baikorra eta polita uztea ere oso garrantzitsua iruditzen zait.

**M:** Ni beti kirolaria izan naiz eta nire lehenengo garagardoa 25 urterekin hartu nuen. Batzuetan ez dago arrazoi bat atzean, tokatu egin zitzaidan, eta kitto!



## **Eta bizitzarekiko ikuspuntua aldatu al zaizue?**

**M:** Niri bai. Gaixo nengoenean, nire lagunek nirekin kafe bat hartzeko denbora ateratzen zutelako nabaritzen nuen. Eta orain gaixotasuna gaitzudanean, hainbeste baloratzen zenuen momentu horiek ez zaizkizu ahazten, baina gainerakoei bai. Beti dago aitzakiaren bat hitzordua beste egun baterako uzteko. Askoz gehiago baloratzen ditut orain detaile txiki horiek, bizitzako momentu horiek. 26 urte nituenetik 31 urtera arte gaixo egon naiz. Ikasketak geldiarazi zizkidan, bizitza pertsonala, bidaiatu ahal izatea, parrandak, lehenengo lanpostuak... Ni gaixorik egon naizen bitartean, nire kuadrillakoek gauza asko egin dituzte eta hori ez dut behin ere berreskuratuko, baina gauza asko ikasi ditut.

**B:** Nik desengainu handiak hartu ditut jende askorekin. Batzuekin ezustekoa hartu dut onerako. Gaixotasunean inoiz baino babes handiago jaso dut espero ez nuen askoren aldetik, baina beste askok, huts egin didate. Baina pozten naiz, nahiago dudalako egia jakin.

**L:** Garbiñe gaixo egon zen hiru urte horietan, ni, mundutik deskonektaturik nengoen. Orain ohartzen naiz horretaz. Badakit etxekoan laguntza guztia nuela, nahiz eta ez

Egin zaitez  
MUIN-EMAILE!  
Informa zaitez zure  
osasun etxean.

nuen gehiegi eskatzen. Gaixotasunak iraun bitartean, ez nuen laguntza behar nuenik sentitzen. Baina, Garbiñe hil eta gero, zenbait lagunek kale egin didatela ohartu naiz. Kuadrilla kontzeptuaren esanahia ere guztiz aldatu zait. Momentu zailetan ohartzten zara, nor duzun benetako laguna.

**M:** Ama urte horietan guztietan nirekin egon zen 24 orduz, oso ezberdinak gara eta asko txokatzen dugu, baina begirada batekin ulertzen zuen uneoro nola sentitzen nintzen. Orain gogorra egiten zait ikustea urte horietan bizitako estresak nola eragin dion.

**L:** Hori normala da. Nik ospitalean lo egiten nuenean, ez nuen inolako minik sentitzen, oso ordu gutxi egiten nituen lo eta ez nengoen nekaturik. Dena pasa ondoren hasi nintzen bizkarreko minarekin.

**B:** Nire etxeakoak bikain portatu dira nirekin. Baina badakit eurek ere gaizki pasa dutela eta min handia eman dit adibidez, nire senarrari bera zer moduz zegoen inork galdetzen ez ziola ikusteak.

**L:** Nik, batez ere, heriotzaren ondotik sentitu dut hutsunea eta bakardadea. Bizitzako lehentasunak ere aldatu zaizkit, lehen lana zegoen nire lehentasunen artean. Hori aldatu egin da, laguntasunari ematen nion balioa bezala.

**M:** Alotransplantea egin aurretik okerrera egin nuela esan zidatenean, nire bikotekidearekin hasi berria nintzen eta ez nuen nahi bera nirekin egotera behartua sentitzerik. Baina dena eman dit, asko erakutsi dit. Eta momentu

zailtan hor baldin badago, momentu onetan egotea oso erraza da.

## **Eta heriotzarekiko ikuspuntua?**

**M:** Niri ez zait aldatu. Nik ia ez dut heriotzan pentsatu.

**B:** Nik ere ez! Nik banekien ez nintzela hilko. Nik sufrimenduari nion beldurra, baina ematen zizkidaten sendagaiekin ez zidaten sufritzen uzten.

**M:** Nik bai, asko sufritu dut! Nik ez nuen ezer hartu nahi, ez morfinarik eta ez beste ezer!

**L:** Guk, egunerokoan, ez genuen heriotzan pentsatzen, nahiz eta jakin bagenekien helduko zela. Ez genuen heriotzaz gehiegi hitz egiten. Baina, adibidez, Garbiñek etorkizunaz hitz egiten zidan, gaztea nintzela eta nire bizitza berregin behar nuela. Hori nolabait heriotzaz hitz egitea zen eta oso gogorra zen.

## **Osasungintzan gabezia asko ikusi dituzue?**

**L:** Ni oso ongi sentiarazi naute. Beti pentsatu izan dut Onkologiako langileak profil berezikoak direla.

**B:** Bai, baita bertako garbitzaileak ere!

**L:** Nik oraindik harremana mantentzen dut bertako zenbait langileekin.

**M:** Nik ere bai. Nire antzeko izaera zuen hematologo bat tokatu zitzaidan niri eta horren harreman estua egin izanak asko lagundu dit. Asko eskertzen diot.

## **Zer esango zeniokezte minbizia motaren bat duela jaso berri duen pertsona bati?**

**M:** Ez dadila inoiz txarrean jarri. Eta niri medikuek esan zidaten moduan, ez dadila Internet bidez informazio bila hasi.

**B:** Ez dadila egoera okerrenetan pentsatzen hasi, ez dadila aurreratu. Ez dezala pentsatu: Eta tratamenduak ez badu funtzionatzen, zer? Agian ez da hori gertatuko. Har ditzala arazoak etorri ahala.

**L:** Egunean egunekoa eta medikuetan konfiantza izan dezala.

**M:** Behin diagnostikoa eginda, esku onenetan dagoela, zerbait jakin nahi badu beraiei galdetu eta ahal duen neurrian bere bizimoduarekin jarraitzeko.

**B:** Eta luzea dela, baina pasatzen dela!



Garbiñek arrazoi asko zituen gaixotasunari aurre egiteko. Arg.: Lontxin Zubilagak utzitakoa.



LEKUNBERRI

## Garai bateko lanekin lotutako erakustaldi berriak Antzinako Azokan

Dagoeneko urteroko ospakizun finkoa bilakatu da Antzinako Azoka Lekunberrin. Abuztuaren lehen asteburuan ospatu ohi da herriko alde zaharrea. Azken urte hauetako ildoari jarraituz, antzezlan eta erakustaldi xumeak egin ziren aldi berean Alde Zaharreko txoko ezberdinetan, sorginkeriak, ipuin kontaketak, antzerkiak, musikariak... Aurtengoan gainera, aste batzuk lehenago Ondare Taldearen eskutik, auzolanean berritutako garbi-tokian hainbat herritar aritu ziren arropa garbitzen. Herriko Plazan, nekazaritzarekin lotutako erakusketak eta postuak eskaini ziren, tartean baita gaztaren ekoizpenaren erakustaldia edota artile-moztea.



LEKUNBERRI

## Aizkora saioa eta artisau azoka aurtengo Nekazal Azokan

Abuztuko azken igandean, Lekunberrin Nekazal Azoka izan zen. Eskulangintzako eta elikadura arloko ekoizle txikiek euren produktuak zuzenean saltzeko aukera izan zuten Iturritak kalean zehar jarritako postuetan. Urteroko ohiturari jarraituz, aurtengoan ere zenbait abere ekarri zituzten abeltzainek, txikienen gozamenarako eta antzinako lan-tresnen erakusketa ere egin zen. Edizio honetan, aizkora saioa ere eskaini zuten Jon Rekondok eta Xabier Orbegozok. Hamar kanaerdiko moztu behar izan zituzten eta azkenean leitzarra izan zen garaile.




**Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean**  
**Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta**  
**14:30etatik 17:00etara**



**BACALAO**  
**ELKANO**  
**S.L.**

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
**[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)**  
**[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)**



## BETELU

Herriz herri,  
parrandaz parranda!

Eskualdeko txoko gehienetan dagoeneko, ospatu dituzte euren herriko festak. Betelun eta Mugiron Sanpedroak ospatu eta gero, Azkarateko Sanferminak izan ziren. Aurten, gainera, ikuskizun berezia eskaini zuten. Bailarako hainbat herritarren artean prestatutako Kattalin ikuskizunaren aurrerapen bat izan genuen Betelun, baina Azkaraten, iluntzean egin zuten ikuskizunaren aurkezpen nagusia. Sanferminen ondotik, Arriben, Astitzen, Errazkinen, Azpirotzen, Oderitzen, Uztegin, Lezaetan, Iribasen eta Gorritin ere izan dira jaiak uztaillean eta abuztuan zehar. Baina oraindik ere beste horrenbeste izango ditugu Sanmartinak bitarte (Datozen jaien egitarauak 32. orrialdean ikusgai). Horra hor uda honetan jasotako zenbait irudi!

## AZKARATE



## ARRIBE



## UZTEGI



## IRIBAS



## GORRITI





AZPIROTZ



LEZAETA



ERRAZKIN





## laz bezainbeste parte-hartzaile espero dira Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalean

Nafarroako Mendi Federazioaren Mendi Lasterketaren Zirkuituaren eta Euskal Mendi Fereazioaren Mendi Lasterketen Zirkuituaren barruan sartu da aurtentzen Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalaren proba. Hori dela eta antolatzaileek iazko parte-hartzaile kopuruari eustea ez ezik, gainditzea ere espero dute. Gehienez 200 korrikalarik izanen dute parte hartzeko aukera, iaz 129 izan ziren.

Probaren bigarren edizio hau, irailaren 15ean izanen da. Goizeko hamarretan hasiko da. Intzako plazatik hasi eta Ttutturreko tontorreraino ahalik eta azkarren igo beharko dute lasterkariak. 960 metroko desnibel positiboa duen 3 kilometro eta 850 metroko ibilbidea.

Izen emateko epea, proba baino bi egun lehenago itxiko da, beraz, oraindik garaiz zabilta (Izen-ematea: [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com)). Izen-emate bakoitzetik bi euro Paris 365 Elkarteari ekarpena egiteko bideratuko da.

Informazio gehiago: [www.intzattutturrekb.eus](http://www.intzattutturrekb.eus) atarian.

## Irailaren 10ean hasiko da aurtengo kirol ikastaroetan izen emateko epea

Hemen da ikasturte berria eta eskualdeko Kirol Mankomunitateak datozen hilabeteetan eskainiko dituen ikastaroen aurkezpena egin du. Izen emateko epea irailaren 10ean irekiko da eta irailaren 21era arte luzatuko da.

Kirolguneko teilatuaren berritze lanak direla eta itxirik egon dira instalazioak abuztuaren zehar, baina irailaren 3an irekiko da. Oraindik Plazaola Kirolguneko bazkide ez bazara, aurtentzen %100eko deskontua egingo zaie bazkide berriei euren hasierako izen-ematean. Gainera, irailaren 29an Ate irekiak izanen dira, kirolgunea eta bertan egiten diren jarduerak ezagutzeko. Ate irekien eguna musikaz alaiturik egonen da eta gainera paella eskainiko da bazkaltzeko.

Pilota, judoa, igeriketa, pilates, gimnasia, yoga... kirol eskaintza zabala dugu aurtentzen!

Informa zaitez: Plazaola Kirolgunean: 948 507 337 - [plazaolakkirolgunea@gmail.com](mailto:plazaolakkirolgunea@gmail.com), Kirol Mankomunitatean: 948 604 545 / 649 20 53 10 - [kirolmankomunitatea@gmail.com](mailto:kirolmankomunitatea@gmail.com), [www.kirolmank.eus](http://www.kirolmank.eus).

## Defentsa pertsonala eskainiko da emakumeentzako

Dagoeneko badira urte batzuk Kirol Mankomunitateak judoa eta defentsa pertsonalerako ikastaroak eskaintzen dituela.

Aurtentzen, emakumezkoek eskusiboki zuzendutako defentsa pertsonaleko ikastaroa ere izanen da. Haurrentzako judoa astelehenetan (18:00-19:00) eta asteazkenetan (17:30-18:30) emanen da. Helduentzako judoa eta defentsa pertsonalerako saioak astelehen (19:00-20:00) eta asteazkenetan (18:30-19:30) izanen dira. Eta Defentsa Pertsonalaren emakumezkoen taldea asteazkenetan (19:30-20:30) bilduko da. Animatu eta eman izena 669 953 402 telefono zenbakiaren bitartez edo Plazaola kiroldegian.

## Esku pilota eta pala irakasleak behar dira

Ikasturte honetarako esku pilota eta pala irakasleak behar ditu Larraungo Pilota Elkartek. Interesaturik egonez gero, jarri harremanetan [larraunpe@gmail.com](mailto:larraunpe@gmail.com) e-postaren bitartez.





## Eta bitartean Aralar Kanpinean utzitako zorrak ordaintzeke...

Aurten ere Diversport enpresak antolatuko du irailaren 16an izanen den Plazaolako III. Maratoia eta XII. Maratoi Erdia. Joan den bi edizioetan ere enpresa kataluniar beraren esku utzi zuen Plazaola Partzuergo Turistikoak kirol proba horien kudeaketa. Bi urte horietan Diversport enpresako langileak Lekunberriko Aralar Kanpinean hartu zuten ostatu probaren aurreko eta ondorengo egunetan. Iaz ordea, ordaindu gabe alde egin zuten. Aralar Kanpineko jabeak diren Itziar Gastesik eta Iñigo Garañok urtebete daramate zorra kobratu ezinik.

*"Lehenengo urtean ez genuen inolako arazorik izan, nahiz eta guri lan gehigarri bat suposatu, probaren aurreko asteetan zehar garraiolari ezberdinak iristen baitira, probarako beharrezko materialarekin, janariarekin etab.-ekin. Guk gure burua eskaini genuen hori guztia hemen jasotzeko eta gordetzeko".* Lehenengo urtean, ostatuaren faktura inolako arazorik gabe ordaindu eta egindako mesedearen truke kamiseta batzuk oparitu zizkieten. Iaz ordea, garraiolariak noiz etorriko ziren aurrez abisatzeko eskatu zieten, lan handia suposatzen baitzuen... Ez zieten abisatzeko, baina hala ere, garraiolariak kanpinera iritsi ahala, bere lanak egiten zebilen Iñigok, eginbeharrak utzi eta materiala jaso eta gorde egiten zuen. Itziar: *"As-tebete lehenago, furgonetan etorri zen enpresako kudeatzailea bere bikotearekin, oraingoan ez zutela partzelarik*



*behar eta aparkaleku pernokta eskaini genien, baina lanerako internet zerbitzua behar zuenez, salbuespena egin eta barrura sartzen utzi genien".*

Ondorengo egunetan langileak etortzen hasi ziren, batzuk bungalowetan, beste batzuk aterpeko logeletan, beste batzuk kanpin-dendan... Egun haietan, bestelako bezeroak ere baziren Aralar Kanpinean. Iñigo: *"Probaren aurreko egunean Iruñean izan ziren eta gauean kanpinera iritsi zirenean, goizeko bostetan furgonetak kargatu eta aterako zituztela esan zidaten. Nik ezezkoa eman nien, isiltasun ordua zela eta goizeko zazpiak arte ezin zituztela mugitu. Lehenengo urtean, berdina egin zuten eta abisatu genien zeintzuk ziren kanpineko ordutegiak eta arauak. Nire ezezkoa jaso ondoren, irainka alde egin zuen beherantz eta dena kargatzen hasi ziren goizeko ordu batetan eta gainerako bezeroekiko inolako errespeturik gabe".* Probaren egunean, ez zuten elkar ikusi, Itziar gaueko hamarrak arte harreran egon bazen ere. Mezu bat

bidali zion faktura nola jaso nahi zuen jakiteko, baina erantzunik ez. Itziar: *"As-telehenean ezer esan gabe eta ordaindu gabe alde egin zuten. Faktura emailaz bidali genien, baina ez zuten ordaintarik egin".* Geroztik dei eta mezu asko bidali dizkiete harremanetan jartzeko, baina ezer ez, egun batean fakturaren %62,25aren ordainketa bat jaso zuten arte. Urtebete pasa da eta Aralar Kanpinean falta dena kobratzeko esperoan daude. Itziar: *"Plazaola Partzuergo Turistikoko bazkideak gara eta bertara ere laguntza eske jo dugun arren, babesik gabe sentitu gara. Nola da posible enpresa horrek gurean zorrak utzi dituela jakinda aurtengoan ere bere esku uztea probaren kudeaketa?"*

Gustavo Ortiz, Plazaolako gerentea: *"Diversport enpresako kudeatzailea ez dago ados jasotako zerbitzuarekin. Baina kexatzeko eskubidea izan arren, ordainketa egitea da bere bete-beharra. Honek guztiak erdian harra-patu du partzuergoa eta arazoa lehenbailehen konpontzea espero dugu".*

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZA  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Iruztzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**MAILOPE!**  
**LAGUNDU MAILOPE!**  
**LAGUNDU MAILOPE!**  
Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**AURRERA**  
**TABERNA**  
**ARALAR, 15**  
948 60 47 24

**TAXI**  
**SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

# “Ez da zerbait tragikoa artista izatea”

## Arte Ederren ikasketak amaitu zenituen orain dela urtebete eta dagoeneko zure tailertxoan duzu, Katixa...

Bai. Lehendabizi Irudia ikasi nuen Andoainen eta ondoren Arte Ederrak Leioan. Bilbon praktiketan ibili nintzen arte galeria batean, baina gero etxera bueltatu nintzen. Ikasketak bukatu nituenean argi nuen bakarra zen masterrik ez nuela egin nahi, nire kabuz ikasten jarraitu nahi nuen, gauzatxoak egiten hasi. Unibertsitateko erosotasun eta babes horretatik atera nahi nuen.

## Eta zer moduz etxea buelta?

Pixka bat zaila izan da hona bueltatzea, aurrera jarraitu ezinik sentitu nintzen hasieran. Hemen aukera gutxiago dago proiektuetan parte hartzeko. Baina Bilbon ere zaila ikusten nuen nire tailer propioa edukitzea, dena askoz ere garestiagoa delako. Eta beste lan batean sartutako orduak gehiago mugatzen dizute honetan aritzeko aukera. Hemen sagardotegian eta han eta hemen ibili naiz lanean eta horrela apustu txiki hau egin dut. Lokal hau hartu dut Lekunberriko Aralar kalean.

## Zer egin nahi duzu espazio honetan?

Nire helburua lanerako leku bat edukitzea da. Etxetik kanpo leku bat eduki nahi nuen. Etxean lan egiten saiatu nintzen hasieran, baina ezberdina da. Etxea bizitzeko da eta lanerako handik atera egin nahi nuen, lanerako espazio bat izan, trastez betetzeko... [Kar, kar, kar].

*“Oraindik artearen merkatua ez dut gehiegi ezagutzen eta lehenik nire lana garatzea gustatuko litzaidake”*

## Eta orain arte egin dituzun lanak zeintzuk izan dira?

Ikasketa amaierako lana margoari buruzkoa egin nuen eta ondoren, hortik tiraka, ikertzen jarraitu dut.

## Beraz, zure lan esparru nagusia zein da?

Margoa, marrazkia, argazkigintza, bi-deogintza ere lantzen ari naiz... Orain arte gehien landu dudana margoa izan da, margoa nola eraikitzen den aztertzen ibili naiz. Batez ere olioare-

kin egin dut lan, grisekin eta monokromoekin, eta forman zentratuz.

## Eta zein da zure lan egiteko modua?

Lanean hasi eta batzuetan konturatzen zara materialki zerbait pasatzen dela eta hori gorde edo baztertu egiten duzu. Adibidez, lanetako batean, marrak marraztuz paper oso bat nola antolatu daitekeen ikertu nuen, paperak zentzu bat hartzen du horrela banatuta. Eta margoak argazkiekin ere tartekatu izan ditut, azkenean dena antolatzen joaten da eta zentzu zabalagoa hartzen du.

## Eta lan hauek saltzeko aukera ikusten al duzu?

Ez. Momentuz, hauek ez dira saltzeko produktuak. Oraindik artearen merkatua ez dut gehiegi ezagutzen eta lehenik nire lana garatzea gustatuko litzaidake. Ez dut merkatu horretan sartzeko aukeran gehiegi pentsatzen, ez dutelako oso erreala ikusten honetaz bizitzea. Badira diru-laguntza deialdiak eta erakusketak egiteko aukerak eta horiek aprobeztatu nahi nituzke. Orain, irailean, Ziortza Pereira eta Amaia Legarrarekin egingo dudana erakusketa bat prestatzen nabil. Bilboko Txurdinaga auzoan, Begoña

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL  
LEKUNBERRI**  
*Suaren  
kontrako  
plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**IORTIA** EL INCA ESTÉTICA · HORTZ ESTETIKA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI





Barrutiko Udan Zentruan, egonen da ikusgai, irailaren 17tik aurrera. Tailerren bat egiteko asmoa ere baloratzen nabil. Haurrei zuzendutako tailer bat, elkarrekin ikasteko esperientzi ezberdin bat.

### Senideek eta lagunek zer diote hemen lanean ikusten zaituztenean?

Beno, tarteka etortzen dira. Egia da artearen munduan ez bazaude edo ezagutzen ez baduzu zaila dela ulertzea edo baloratzea. Nik uste konturatzen direla niretzako garrantzitsua dela eta onartu egiten dute. Ez da zerbait tragikoa artista izatea! [Kar, kar, kar].

### Larraungo zenbait herrietan lan batzuk ere egin dituzu dagoeneko...

Bai. Mugiron ekaineko azkeneko astean mural bat margotu genuen frontoiaren atzeko paretan. Alba Rebollo eta Beñat Jauregiren laguntzaz egin nuen lan hura. Mugiroko kontzejuari proposatu genion eta hala egin genuen.

### Hor zer izan da irudikatu duzuen Mugiroko "M"-ak al dira?

Ez. Denetik esan dizkigu jendeak. Mugiro izenaren "M"-ak direla, jausika dabilen pilota bat dela, mendiak iru-

dikatu ditugula... Koloredun lerroak dira, besterik ez! [Kar, kar, kar].

### Uitzin ere beste mural bat egin zenuen...

Bai, Larraungo Egunean egiteko proposamena luzatu zidaten. Bertan, haur zein helduekin batera, denon artean mural bat margotu genuen, forma geometrikoekin. Eta Alliko Akelar lokalean ere beste lantxo bat egin dugu.

### Zer gustatuko litzaizuke egitea etorkizunean?

Argazkigintza gehiago lantzea gustatuko litzaidake, dimentsio handigoetan eta paper eta material ezberdinekin. Nire helburua, ahal dudan heinean lanean jarraitzea da, hortik ikasten jarraitzea... Proposamenak beti dira eskertzekoak, beraz norbaiten ideia bereziren bat baldin badu proposa dezake eta kasuan kasu balora liteke.

Harremanetarako:

626 849 629

[katixagoldarazena@gmail.com](mailto:katixagoldarazena@gmail.com)

*Artearen merkatuan murgiltzea ez da inoiz erraza izan, are gutxiago hasi berritan eta gurea bezalako eskualde txiki batean. Katixa Goldarazena Azpirotz arruiztarrak 25 urte ditu eta Arte Ederrak ikasi eta gero, bere lehenengo lanak egiten hasi da Larraunen.*

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU bar**

ETXKO PIZZAK,  
KOPA, BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
[gtlarrapun@gmail.com](mailto:gtlarrapun@gmail.com)

**DONEZTEBE-IRURTZUN TXIRRINDULARITZA-IBILBIDEKO UGEPSA ONARTU DA**

**52 kilometroko luzeran, Plazaolako eta Bidasoako bide berdeak lotuko ditu**

Joan den uztailaren 25ean Nafarroako Gobernuak Doneztebe-Irurtzun Txirrindularitza ibilbidearen Udalez gaindiko Eragineko Proiektu Sektoriala onartu zuen. Ederbidearen baitan kokatzen da UGEPS egitasmoa eta Iruña, Donostia eta Baiona lotzea da helburua, 240 kilometroko bidearen bitartez bizikletaren erabilera sustatzeko.

Nafarroan, Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak elkartuko ditu. Donezteben Bidasoako Bide Berdearekin lotura egingo da eta Saldiaстик barrena, Basaburua zeharkatu eta gero Imotzen, Latasan zehazki, Plazaolako Bide Berdearekin bat egingo du Irurtzun aldera jarraituz. Beraz, ez du bere baitan hartuko Leitza eta Irurtzun arteko zatia.



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**CARPINTERIX HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

**ALTSASU - IRURTZUN**  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LÖREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
.....  
**24 ORDUKO TELEFONOA**  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es

**Larraungo AEK**

- Maila guztiak
- Guraso taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)
- Taldea edo autoikaskuntza
- Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA  
948 60 47 04 edo 607 622 102 | larraun@aek.eus  
Izena eman irailaren 27a baino lehen  
Artzanegi 6, Lekunberri

**Diru-laguntzak**  
Iparaldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak

**aek** euskara praktikoa

**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**

**EUSKARA-İKASTARÖAK**



IRAILA

15 | INTZA:

Intza-Ttuturre Kilometro Bertikala.

15 | LEKUNBERRI:

Artzai Amerikarren Topaketa.

16 | LEKUNBERRI:

Plazaolako III. Maratoia eta XII. Maratoi Erdia.

23 | LEKUNBERRI:

Sagardoaren Eguna.

30 | ATALLU:

Araitz-Beteluko Eguna.

MATRIKULAZIO KANPAINA  
IREKITA  
Informazioa  
699 70 49 51  
948 61 07 76

LEITZA, IMOTZ-BASABURUA eta  
ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA  
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1  
Tel. 948 610 776  
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

DIRU-LAGUNTZAK  
DAUDE

euskara  
erazago  
egiten  
**ika**

www.ikaeuskaltegiak.eus

**MATRIKULA ZAITEZ  
irailaren 28a baino lehen**

OPARITZEN DA

- Collie arrazako bi txakur oparitzen dira. Ongi zainduko direnaren baldintzarekin emango dira. Harremanetarako: 629 403 220 (Iñaki).

SALGAI

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
ARBEONDO  
HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**aitz  
berri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com



## ALLIKO PESTA EGUNA

### IRAILAK 1, LARUNBATA

- 12:30 Suziria eta bermuta.
  - 14:00 Herri bazkaria
  - 16:30 Mus txapelketa
  - 17:00 Haurrentzako jolasak.
  - 18:30 Txu&txu antzezlan
  - 20:00 Musika DJ Oinaxirekin
  - 21:30 Benduafaria
  - 23:30 Gaupasa DJ Oinaxirekin
- Goizaldean gosaria

## INTZAKO FESTAK

### IRAILAK 7, OSTIRALA

- 17:00 Txupinazo
  - 17:00 Mus txapelketa
  - 20:30 Presoen aldeko enkartelada
  - 21:30 Afari autogestionatua. Ondoren kontzertua
- Bixean Bixenekin eta Dj Intzarekin.

### IRAILAK 8, LARUNBATA

- 10:00 Mes Nagusia
- 11:00 Puska-biltza
- 18:00 Ume-jokuak
- 21:30 Herri-afaria (txartelak Arribeko dendan eta Beteluko ostatuan salgai)
- 00:00 Erromeria Obaneuke taldearekin

### IRAILAK 9, IGANDEA

- 12:00 Toka txapelketa
- 18:00 Herri-kirolak. Ondoren, trikitixa Alaitz eta Mattierekin.

(Puzgarriak izanen dira asteburu guztian zehar)

## ETXARRIKO FESTAK

### IRAILAK 8, LARUNBATA

- 11:00 Suziria.
  - 11:30 Bordetara oinez
  - 12:00 Erronda Bordetan
  - 14:00 Herrira oinez
  - 15:00 Erronda herrian zehar
  - 17:00 Puzgarria
  - 18:00 MAKSIM Magoa
  - 20:00 Dantzaldia BELAÑO taldearekin
  - 21:30 Barrikotea
  - 23:00 Dantzaldia BELAÑO taldearekin
- eta ondoren DJ OIXANI

### IRAILAK 9, IGANDEA

- 14:00 Herriko bazkaria
- 17:00 Puzgarria

## ARRUIZKO FESTAK

### IRAILAK 21, OSTIRALA

- 20:00 Txupinazo
- 20:00 Erronda
- 23:30 Kafea, eta ondorengoak (Elkartean)

### IRAILAK 22, LARUNBATA

- 11:30 Erronda
- 17:30 Haur jokuak
- Merendua
- 18:00 Mus txapelketa
- 19:45 Zezenzuzko
- 20:00 Barrikote
- 21:00 Dantzaldia

### IRAILAK 23, IGANDEA

- 11:30 Erronda
  - 17:00 Pilota partiduak
- (Larraungo Pilota Eskola)

## UITZIKO PESTAK

### IRAILAK 27, OSTEGUNA

- 17:00 Txupinazoa
- 17:15 Frontenis txapelketa
- 19:00 Zumbapoteoa
- 21:30 Aparia eta ondoren bingoa
- 23:30 Dantzaldia

### IRAILAK 28, OSTIRALA

- 14:00 Gazte bazkaria
- 17:00 Gazteen arteko mus txapelketa
- 18:30 Toka lehiaketa
- 20:30 Dantzaldia DJ OIXANIrekin
- 22:00 Aparia Merkualde elkartean
- 01:00 Dantzaldia DJ OIXANIrekin

### IRAILAK 29, LARUNBATA (Mikel Donearen Eguna)

- 10:00 Aurora
- 11:00 Meza Nagusia
- 12:00 Hamaiketakoa
- 13:00 Aizkolariak
- 16:00 Kafea eta pastak Merkualde Elkartean
- 17:00 Puzgarriak eta umeentzako tailerrak
- 19:00 Txokolatada
- 20:00 Dantzaldia DJ OIXANIrekin
- 22:00 Aparia Merkualde elkartean
- 01:00 Dantzaldia DJ FRAN BARROSOrekin

### IRAILAK 30, IGANDEA

- 10:00 Diana txistulariekin
- 11:00 Pilota partiduak
- 12:00 Espuma festa
- 12:00 Mus txapelketa
- 17:00 Umeen arteko herri kirolak
- 18:00 Herri kirolak
- 19:00 Sagardoa eta pintxoak musikaz alaituta
- 24:00 Denak lotara